



ENERGYM I.A.A

DESKRIBAPENA

Sortu dugun enpresa kirol-zentro batean edo gimnasio batean oinarritzen da. Haren helburu nagusia gimnasioko makinek pertsonak erabili ostean sortutako energia berritzea eta berrerabiltzea da. Gimnasioa ertaina eta estandarra izango litzateke, eta herrien erdian egongo litzateke, herri bakoitzeko gunerik aurreratuenan.

Gure gimnasioaren ezaugarri berezia gure makinek duten erabilgarritasuna da. Makina bakoitzean erabiltzen den energia biltegitatu egingo litzateke, ondoren erabili ahal izateko. Gimnasioko makinaren mekanismoei sortutako energia biltzeko bateriak erabiliko ditugu, makina bakoitzeko bateria bat jarriko dugu. Baita gimnasioan zonalde bat egongo da non bateria guztien energia izugarritzeko bateria handi batean bilduko dena.

Makinak erabilgarriak izango dira adin guztietako pertsonentzat. Zenbat eta intentsitate handiagoz erabili makinak, orduan eta energia gehiago sortuko duzu, adibidez, intentsitate handiarekin makina erabiltzen duen pertsona batek baina soilik 15 minutu erabiltzen badu, intentsitate gutxiarekin makina erabiltzen duen pertsona batek eta ordu erdi erabiltzen duena baino energia gehiago sortuko du.

Sortuko dugun energia, udaletxeari salduko diogu. Gure gimnasia izena ematen duen bakoitzak, udaletxea energia merkeago ordaintzea eragingo dio.

